

HAUR ETA GAZTE LITERATURA: BITARTEKARITZAREN ESTRATEGIAK ETA PRAKTIKAK

UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAREN AURKEZPENA ETA PROGRAMA

- **ANTOLATZAILEAK**

Galtzagorri elkarte eta UPV/EHU-ko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua.

- **ARDURADUN AKADEMIKOAK**

Alex Gurrutxaga (UPV/EHU) eta Miriam Luki (Galtzagorri Elkarte)

- **AURKEZPENA**

Haur eta Gazte Literatura Eskolan ikastaroa bost urtez egin ondoren — Gipuzkoako eta Arabako EHuko campusetan—, ikastaroa berritzeko unea iritsi da. Batetik, haur eta gazte literaturaren bitartekariak hezkuntza esparruaz harago aritzen direlako. Bestetik, bitartekaritza ardatz hartuko duen ikastaro praktikoa egiteko beharra sumatu dugu. Hala, ikastaro berriak aurretik egindako ikastaroan jasotako jakintza eta eskarmentua aintzat hartuta ere, programa berria eskainiko du non bitartekariari ahotsa eman, eta beste bitartekariak trebatzeko espazioa sortuko dugun.

UPV/EHU-ko Unibertsitate Hedakuntzako Ikastaroen eskaintzaren barruan eskainiko dugu ikastaroa, 2025eko urtarrilean hasita.

- **IKASTAROAREN HARTZAILEAK**

1. Irakaskuntzan diharduten maisu-maistrak eta hezkuntzaren munduko bitartekariak oro har. Irakasle izateko ikasketan egiten ari direnak barne.



2. Bitartekaritza beste esparru batzuetan egiten duten irakurle, liburuzain, guraso, sortzaile —izan ipuin kontalari, idazle, ilustratzaile, antzerkigile, aktore edota haurrekin zein gazteekin bitartekaritzan ari den sortzaile— edo gaiarekiko interesa duen norbanako.

- **HOMOLOGAZIOA**

Ikastaroak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren homologazioa onartuta du Unibertsitate Hedakuntzako Ikastaroaren modalitatean.

- **EBALUAZIOA**

Ikastaroaren aprobetxamendu ziurtagiria eskuratzeko, bi baldintza bete beharko dituzte ikasleek:

- Saioen % 80etara etortzea.
- On-line egin beharreko jarduerak burutzea.

- **IRAKASKUNTZA-MODALITATEA: ERDI PRESENTZIALA**

Ikastaro honek 65 orduko iraupena izango du. 45 ordu presentzial (3 orduko 15 saiotan banatuta) eta 20 ordu ez-presentzial dagozkien 5 lan eskatuko ditugu. Guztira, 65 kreditu beteko dituzte ikasleek.

Saio presentzialak, horrenbestez, 3 ordukoak izango dira, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara eta asteazken arratsaldez emango dira, **Donostiako HEFA II eraikinean** (Oñati Plaza 3, 20018 Donostia), Hezkuntza eta Filosofia Fakultatean.

- **IZEN-EMATEA ETA MATRIKULA**

Ikastaroan izena emateko epea zabalik egongo da **2024ko azaroaren 11tik abenduaren 2ra**. Horretarako, izen-emate FORMULARIOA bete beharko da datu orokorrekin, eta aurkezpen-gutun laburrekin (gehienez 10 lerrokoa).

Ikastaroan onartuak diren ikasleei mezu elektronikoz jakinaraziko zaie eta matrikula egingo dute **2024ko abenduaren 9tik 16era**.



- Ikasleek eta langabetuek **50 euroko** matrikula ordainduko dute.
- Ikasleak ez direnek **150 euroko** matrikula ordainduko dute.
- Galtzagorri elkarteko bazkideek **100 euroko** matrikula ordainduko dute.

- IKASKETA PLANA ETA PROGRAMA

HAUR ETA GAZTE LITERATURA: BITARTEKARITZAREN ESTRATEGIAK ETA PRAKTIKAK		
1. Bitartekaritza: abiapuntuak		
Zertaz ari gara bitartekaritza ari garenean?	Urtarrilak 8	Anna Juan Cantavella
Bitartekaritza ikuspuntu psikoafektibotik	Urtarrilak 15	Juan Carlos Alonso
Bitartekaritza eta euskarazko haur eta gazte literaturaren ekosistema: editore-lana	Urtarrilak 22	Garazi Arrula
2. Bitartekaritzaren espazioak		
Eskola	Urtarrilak 29	Nora Uribeetxeberria
Eskola Liburutegia	Otsailak 5	Idoia Sobrino
Herri Liburutegia	Otsailak 12	Igor Idoate
3. Sortzaileak bitartekari		
Ahozkotasuna	Otsailak 19	Juan Kruz Igerabide
Ipuin Klasikoak	Otsailak 26	Saroa Bikandi
Antzerkia	Martxoak 5	Intza Alkain
Narratiba	Martxoak 12	Patxi Zubizarreta
Poesia	Martxoak 19	Leire Bilbao
Albuma	Martxoak 26	Maite Gurrutxaga
Komikia	Apirilak 2	Joseba Larratxe
4. Bitartekaritzaren praktikak		
Ofizioa (I)	Apirilak 8	Miren Billelabeitia
Ofizioa (II)	Apirilak 9	Mireia Delgado